


## FUNTSEZKO JARDUERAK

Proiektuaren funtsezko jarduera, ekoizpena izango da. Funtsezko jarduera produktua ekoiztea eta hau toki on baten mantentzea izango da. Izan ere, begi bistaz kontrolatu behar da, produktuaren kalitatea ezin hobea izango dela. Gainera produktuak dituen mekanismoak enpresarentzat gorde behar dira, hauek funtsezko jardueraren zati garrantzitsu bat baita. Arazoak konpontzeaz ere enpresa arduratuko da, edozein produktuk arazoak baldin baditu, harremanetan jarriz gero prest egongo zen enpresa produktu hori erreparatzeko, betiere urtebeteko garantiaren barruan baldin badago.



shutterstock.com · 2010576512

Funtsezko jardueren bidez ere, bezeroengan interesa piztea da helburua, horretarako erabakia da, herriko polikiroldegiarekin hitz egitea, eta botilak haien bazkideei doainik elaraztea. Ondoren produktu hauen inguruko balorazio bat jasoko zen, “feedback” bezala ezagutzen dena. Produktua bazkideen balorazioari esker, hobetzeaz gain produktua ezagutzera ere emango zen herri mailan gutxienez. Eta publizitate honi eskeri diru-sarrerak eragingo ziren.

Zintzil-Butilen produkzioarekin lotuta, dieseinua hainbat materialez osatuta dago, garrantzitsuena, honek edozein tokitan uzteko ahalmena izango duela da. Eta kantitateari dagokionez hiru neurri ezberdinetan sailkatzen dira; batetik 500ml dituzten botilentzako produktu jakin bat sortuko da, beste bat sortuko da, 1L botilentzat eta azkenik 1,5L duten botilentzat beste bat sortuko da. Guztira hiru neurri ezberdin atxikituko zaizkio produktuari, hiru neurri hauek gehien erabiltzen diren neurriak dira, horrela Zintzil-butilgehiago saltzeko aukera egongo da. Baina produktua entregatzeko modu onena beste enpresa baten bidez elaraztea izango da, herrian bertan egindako eskariak ez baldin badira, beste enpresa batekin harremanetan jarrita produktua herritik kanpo garraiatzea posible izango da

Plataforma eta sare bat edukitzea ezinbestekoa izango da horrela jendeak saretik beratik egingo ditu eskariak eta entrega egiteko enpresa honen bidez produktua elaraziko zaio bezeroari. Sare horretan produktua eskuragai izateaz gain, produktuaren inguruko informazioa ere eskuragai egongo da, nola funtzionatzen

duen mekanismoak, dituen neurri ezberdinak..... Plataforma honetan helbide elektronikoa bat eta telefono bat egongo da, honen bidez produktuaren inguruko edozein kezka erantzun daiteke. Baita produktuarekin erlazionatuta dauden arazoak ere honen bidez konpondu daitezke.